SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18
SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

BERAKO UDALA
herriko etxeko plaza, 1
31780 BERA
NAFARROA
tel. 948 630 005
IFK: P 31 25000D
www.bera.eus
bera@bera.eus

# 2023KO MAIATZAREN 17KO OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2023-05-17.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
Jose Esteban Aguirre Zubieta
Maialen Chantre Irazoki
Patxi Castillo Graciarena
Ines Rosario Matxiarena Aldalur
HERRIRAKO
Jose Antonio Oyarzabal Iribas

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Estibaliz Pinacho Olaciregui
German Castillo Lazcanotegui
Raquel Quiroga Tapia

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:
Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

**1. AURREKO 2 BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.**

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko bilkuretako aktei (2023-04-19 eta 2023-05-02). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu dira aktak.

Jose Esteban Aguirre bilerara sartu da.

**2. 2023/17 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (ZALAIN INDUSTRIALDEKO SANEAMENDU-SAREA BERRITZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko apirilaren 20an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1601-60902. Zalain industrialdeko saneamendu-sarea berritzea. 12.100,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 12.100,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 12.100,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/17 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**3. 2023/18 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (SOINU, ARGIZTAPEN ETA PROIEKZIO EKIPAMENDUA KULTUR ETXEAN).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko maiatzaren 4an egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Udalak jaso duen dirulaguntza honengatik: 96E/2022 Ebazpena, apirilaren 25ekoa, Vianako Printze Erakundeko Kulturako zuzendari nagusiarena, 18.523,10 euroko dirulaguntza ematen duena Berako Kultur Etxeko soinu, argiztapen eta proiekzio ekipamendurako.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:
1-3331-62502. Soinu, argiztapen eta proiekzio ekipamendua Kultur Etxean. 18.523,10 €.
Zenbateko osoa, 18.523,10 €.

SINATZAILEA
Berako idazkaria MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA 2023/05/18
SINATZAILEA
Berako alkatea AITOR ELEXPURU EGAÑA 2023/05/18

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatuko dela:
1-7508005. Dirulaguntza Kultur Etxeko soinu, argiztapen eta proiekzio ekipamendurako. 18.523,10 €.
Zenbateko osoa, 18.523,10 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA diru-sarreren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/18). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

**4. 2023/19 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (SOINU, ARGIZTAPEN ETA PROIEKZIO EKIPAMENDUA KULTUR ETXEAN). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik Kultur Etxean soinu, argiztapen eta proiekzio ekipamendua egin ahal izateko.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 4an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-3331-62502. Soinu, argiztapen eta proiekzio ekipamendua Kultur Etxean. 9.493,09 €.
Zenbatekoa, guztira: 9.493,09 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 9.493,09 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/19 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**5. 2023/20 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (OBRAK KIROLDEGIAN). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 5ean egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3424-62200. Obrak kiroldegian. 8.500,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 8.500,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 8.500,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/20 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**6. 2023/21 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (ESZENATOKIAREN EROSKETA). HASIERAKO ONESPENA.**

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituririk.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 5ean egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3331-62503. Eszenatokiaren erosketa. 25.300,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 25.300,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 25.300,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/21 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**7. 2023/22 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (OBRAK FRONTOIAN). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituririk.

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 5ean egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3422-62200. Obrak frontoian. 46.400,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 46.400,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 46.400,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/22 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**8. 2022/23 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA (IBARDINGO EURI-UREN ETA UR BELTZEN SAREAK BIRGAITZEA).**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaileak 2023ko maiatzaren 5ean egindako txostena. Horren arabera, beharrezkoa da aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetzea kredituak sortzeko Ibardingo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkarteak egin behar duen ekarpenagatik Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzeko proiektua idazteko.

- Ondoko hau dela kreditua behar duen aurrekontu aplikazioa:
1-1602-60900. Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzea. 9.147,60 €.
Zenbateko osoa, 9.147,60 €.

- Gastua ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatuko dela:
1-77000. Hitzarmena urbanizazioa Ibardingo elkartea. 9.147,60 €.
Zenbateko osoa, 9.147,60 €.

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari, eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA diru-sarreren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2023/23). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

**9. 2023/24 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (IBARDINGO EURI-UREN ETA UR BELTZEN SAREAK BIRGAITZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzeko proiektua idazteko.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 5ean egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-1602-60900. Ibardingo euri-uren eta ur beltzen sareak birgaitzea. 1.016,40 €.
Zenbatekoa, guztira: 1.016,40 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 1.016,40 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/24 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**10. 2023/25 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (KIROLDEGIKO EKIPAMENDUA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituriк.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 8an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3424-62501. Kiroldegiko ekipamendua. 5.000,00€.
Zenbatekoa, guztira: 5.000,00€.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 5.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/25 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**11. 2023/26 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (LARUNGO PISTA MOLDATU). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 8an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-4121-69204. Larungo pista moldatu. 40.600,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 40.600,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 40.600,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/26 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**12. 2023/27 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (KANTTONBERRIKO ZOLADURA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko maiatzaren 8an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1533-60901. Kanttonberriko zoladura. 20.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 20.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 20.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/27 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**13. URA BANATZEKO SAREA BERRITZEA ZALAINGO BILTEGIKO GILTZEN GANBERATIK BERAKO FORU PLAZARA IZENBURUA DUEN PROIEKTUKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA.**

Ikusirik “Ura banatzeko sarea berritzea Zalaingo biltegiko giltzen ganberatik Berako Foru plazara” izeneko proiektuko obrak kontratatzeko espedientea, agiri hauek dituena:

- URA BANATZEKO SAREA BERRITZEA ZALAINGO BILTEGIKO GILTZEN GANBERATIK BERAKO FORU PLAZARA izenburuko proiektua, Juan Bautista Guallart Vega bide, ubide eta portuetako ingeniariak idatzia, 2023ko maiatzean eguneratua. Kontratuaren balio zenbatetsia 418.423,17 eurokoa da.

- Beharren txostena eta proiektuaren zuinketa akta, udal arkitekto teknikoak eginak 2023ko maiatzaren 12an.

- Kontratazioaren plegu arautzailea.

- Kontu-hartzaileak 2023ko maiatzaren 15 eta 16an egindako kreditu-erreserba eta txostena.

- Idazkariak 2023ko maiatzaren 15ean egindako txostena.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Onestea "Ura banatzeko sarea berritzea Zalaingo biltegiko giltzen ganberatik Berako Foru plazara" izeneko proiektuko obrak kontratatzeko espedientea, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko.

2. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.

3. Gasturako baimena ematea.

4. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

**14. BERAKO "MUKIXU" HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEA (0-3 URTE) KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATAZEKO ESPEDIENTEA.**

Ikusirik Berako "Mukixu" haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea (0-3 urte) kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea, agiri hauek dituena:

- Lizitazioaren oinarri izango den kontratuaren aurrekontua urtean 258.093,93 eurokoa da (BEZik gabe – jarduera salbuetsia –). Kontratuaren balio zenbatetsia 1.426.131,88 eurokoa da.

- Kontratazioaren plegu arautzaileak (administrazio-klausulak eta preskripzio teknikoak).

- Kontu-hartzaileak 2023ko maiatzaren 15 eta 17an egindako kreditu-erreserba eta txostena.

- Idazkariak 2023ko maiatzaren 17an egindako txostena.

Kontuan hartuta 2024an gauzatu beharreko kontratuaren zatia aldez aurretik izapidetzen dela.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Onestea Berako "Mukixu" haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxea (0-3 urte) kudeatzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea (zerbitzu-emakida), eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko.

2. Kontratazioaren plegu arautzaileak onestea.

3. Gasturako baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo suntsiarazpena, dagokion ekitaldian dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.

4. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

**15. BORTZIRIETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III. PLANA (2023-2027).**

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18
SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

Aztertu da Bortzirietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2023-2027), Berdintasun Zerbitzuko Kudeaketa Mahaiak 2023ko apirilaren 4an onartua, eta gaia eztabaidatu ondoren,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Onartzea Bortzirietako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2023-2027).

2. Akordio hau helaraztea Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari.

**16. BORTZIRIETAKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATE BAKARRA ERATZEA.**

Bortzirietako bortz udalak jakitun dira Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeak izanen lituzkeen abantailez. Hala nola, etorkizunari begira, zerbitzua hobetuko luke, baliabideak hobekiago optimizatzeko aukera izan litzateke eta, ez hori bakarrik, proiektu berriak aitzinera ateratzea erraztuko luke (enpresa publikoak eratzea, arlo ezberdinetako teknikari berriak kontratatzea, etab.). Era berean, dirulaguntzak lortzeko aukera gehiago eman litzakeela uste dute, dauden zerbitzuen arteko lankidetza hobetuko litzateke eta.

Dena dela, jakitun dira baita ere Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeak oraingo sisteman aldaketa nabarmenak eragin ditzakela. Horregatik, beharrezkoa ikusten dute bortz udaletan Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeko baldintzak ezartzea, horiek izanik mankomunitate bakarra eratzeko ezinbertzez bete beharreko baldintzak.

Berako osoko bilkurak, informazioa adituta, **aho batez** ERABAKI DU:

1.- Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeko ezinbertzez bete beharreko baldintza hauek ezartzea:

1. Mankomunitateak idazkari-kontuhartzaile propioa izanen du.

2. Mankomunitateko egoitza nagusia Alkaiagan kokatuko da eta zerbitzuen egoitzak orain kokaturik dauden udaletan mantenduko dira. Etorkizunean, gehiengo kualifikatu bidez (estatutuetan zehazten denaren araberakoa), zerbitzuen egoitza mugitzea onartuko litzateke. Toki aldaketa hau bertze udaletako bertze egoitzaren batera izan daiteke, hau da, egoitzak ez dira zertan Alkaiagara aldatu beharko.

2.- Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarrak idazkari-kontuhartzaile propioa ezin duela izan ebazten badu, alkateari ahalmen nahikoa ematea aipaturiko zuzendaritzara Berako Udalaren izenean jotzeko, Bortzirietako bertze alkateekin batera, eta idazkari-kontuhartzaile propioa izateko izapideak egin ahal izateko.

3.- Akordio hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari, Hiri Hondakinen Mankomunitateari eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinaraztea, Berako Udalaren onespena emanez Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bakarra eratzeko beharrezko izapideekin hasi daitezen.

4.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

SINATZAILEA
Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2023/05/18

SINATZAILEA
Berako alkatea
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2023/05/18

**17. LANKIDETZA HITZARMENERAKO PROPOSAMENA, ORONOZKO (BAZTAN) "ZUNDA" EZGAITUEN ESKUALDE MAILAKO EGUNEKO ZENTROA FINANTZATZEKO.**

Alkateak azaldu du Baztango, Urdazubi, Zugarramurdi, Malerreka eta Bortzirietako Udalek, hala bada, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, "Zunda Etxea" izeneko higiezina birgaituko dutela, Oronozko (Baztan) 6. poligonoko 2. lurzatian kokatua, eguneko zentro gisa egokitzeko, Baztango, Urdazubi, Zugarramurdi, Bortzirietako eta Malerrekako pertsona ezgaituak artatzeko.

Horretarako, beharrezkoa da lankidetza-esparru bat ezartzea Baztango Udalaren eta Urdazubi, Zugarramurdi, Bortzirietako nahiz Malerrekako Udalen artean, desgaitasuna duten pertsonendako eguneko zentroaren obrak egiteko, baita etorkizuneko eraikina kudeatu eta mantentzeko ere.

Gaia eztabaidatu ondoren,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Oronozko (Baztan) "Zunda" Ezgaituen Eskualde Mailako Eguneko Zentroa finantzatzeko lankidetza-hitzarmenaren testua onartzea, eta alkateari ematea agiria sinatzeko ahalmena.

2. Erabaki hau jakinaraztea Baztango Udalari.

**18. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B13/2023 zenbakiduna.

- Ebazpenak: 94/2023 zenbakiko ebazpenetik (2023-04-17) 131/2023 zenbakiko ebazpenera arte (2023-05-10).

**19. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 21:10ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA, IDAZKARIA,